



ORIOKOU DALA

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

Eguna: 2025eko otsailaren 27a, osteguna.

Tokia: Udalbatzarraren aretoa

Ordua: Hasteko ordua: 19:30

Bukatzeko ordua: 19:50

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oliden

Zinegotziak

Olatz Santamaria Bereziartua, Xabier Ibarguren Azkue, Ainara Munduate Iguaran, Bittor Andres Alkorta, Iñaki Macazaga Urdangarin, Lohitzune Solabarrieta Odriozola, Iosu Lizarralde Ibarbia, Nagore Rementeria Argote, Inaxio Alguacil Barrenetxea, Noemi Ostolaza Arkauz, Lourdes Salsamendi Goñi eta Jon Basurko Sarasua

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi.

GAI-ZERREDA

1. Urtarrilaren 27ko 53/2025 alkate-dekretuaren berri ematea. Dekretuak 3/2025 zenbakidun kreditu-aldaketa onartzen du, kreditua txertatzeko modalitatean.
2. Onartzea, egoki bada, Orioko Karela kiroldegirako zenbait kirol-material errentamendu-erregimenean hornitzeko eta instalatzeko kontratua (renting sistema: mantenu eta erosketa aukerarekin) arautuko duten baldintza administratibo partikularren agiria eta preskripzio tekniko zehatzen agiria, gastua onartzea eta lizitazioa martxan jartzea.
3. Behin betiko onarpena ematea, egoki bada, Txara eta Errezabal-Lertxundi bideak Orioko Bide Publikoen Udal Inbentarioan sartzeari.
4. Lehen onarpena ematea, egoki bada, Orioko udalerriko babes akustiko bereziko eremuaren izendapenari: ekintza-plana.
5. Eskariak eta galderak.



BAT.- URTARRILAREN 27KO 53/2025 ALKATE-DEKRETUAREN BERRI EMATEA. DEKRETUAK 3/2025 ZENBAKIDUN KREDITU-ALDAKETA ONARTZEN DU, KREDITUA TXERTATZEKO MODALITATEAN.

Udalbatzarrak urtarrilaren 27ko 53/2025 alkate-dekretuaren berri izan du. Dekretuak 3/2025 zenbakidun kreditu-aldaketa onartzen du, kreditua txertatzeko modalitatean, eta 1.397.956,92 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

BI.-ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO KARELA KIROLDEGIRAKO ZENBAIT KIROL-MATERIAL ERRENTAMENDU-ERREGIMENEAN HORNITZEKO ETA INSTALATZEKO KONTRATUA (RENTING SISTEMA: MANTENU ETA EROSKETA AUKERAREKIN) ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARRAREN AGIRIA ETA PRESKRIPZIO TEKNIKO ZEHATZEN AGIRIA, GASTUA ONARTZEA ETA LIZITAZIOA MARTXAN JARTZEA.

Udalbatzarrak espediente administratiboaren berri izan du. Espedientea honi buruzkoa da: Orioko Karela kiroldegirako zenbait kirol-material errentamendu-erregimenean hornitzeko eta instalatzeko kontratua (renting sistema: mantenu eta erosketa aukerarekin) arautuko duten baldintza administratibo partikularren agiria eta preskripzio tekniko zehatzen agiria, gastua onartzea eta lizitazioa martxan jartzea.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta, Barne Antolaketa batzordeak 2025eko otsailaren 21ean emandako irizpena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA Orioko Karela kiroldegirako zenbait kirol-material errentamendu-erregimenean hornitzeko eta instalatzeko kontratua (renting sistema: mantenu eta erosketa aukerarekin); **ONARTZEA** baldintza administratibo partikularren agiria eta preskripzio tekniko zehatzen agiria, **ONARTZEA** gastua eta lizitazioa martxan jartzea.

HIRU.- BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, TXARA ETA ERREZABAL-LERTXUNDI BIDEAK ORIOKO BIDE PUBLIKOEN UDAL INBENTARIOAN SARTZEARI.

Udalbatzarrak espediente administratiboaren berri izan du. Espedientea Txara eta Errezabal-Lertxundi bideak Orioko bide publikoen udal inbentarioan sartzeari buruzkoa da.



Udalbatzarrak, 2024ko ekainaren 27an egindako ohiko bilkuran, erabaki zuen lehen onarpena ematea Txara eta Errezabal-Lertxundi bideak Orioko bide publikoen udal inbentarioan sartzeari.

Erabaki hori jendaurrean jarri zen hogeita hamar laneguneko epean, 2024ko uztailaren 9ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN (132 zk.) argitaratutako iragarki baten bidez, eta erreferentziako bideen mugakide diren jabeei jakinarazpen pertsonala eta indibidualizatua egin zitzaion. Interesdunek ez zuten inolako erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu, eta, beraz, bidezkoa da behin betiko onartzea.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta, Barne Antolaketa batzordeak 2025eko otsailaren 21ean emandako irizpena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- BEHIN BETIKO ONARTZEA Txara eta Errezabal-Lertxundi bideak Orioko bide publikoen udal inbentarioan sartzea, lehenengo onarpenaren erabakian inolako aldaketarik egin gabe.

2.- ARGITARATZEA erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta legezko zer errekurtso aurkez daitezkeen adieraztea.

LAU.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALERRIKO BABES AKUSTIKO BEREZIKO EREMUAREN IZENDAPENARI: EKINTZA-PLANA.

Udalbatzarrak espediente administratiboaren berri izan du. Espedientea honi buruzkoa da: Orioko udalerriko babes akustiko bereziko eremuaren izendapena: ekintza-plana.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta, Tokiko Garapena batzordeak 2025eko otsailaren 9an emandako irizpena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Orioko udalerriko babes akustiko bereziko eremuaren izendapenari: ekintza-plana.

2.- JENDAURREAN JARTZEA aipatutako espedientea, 30 laneguneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, alegazioak eta erreklamazioak aurkezteko, hala badagokio.

3.- IGORTZEA erreferentziako espedientea gaiaren arabera eskudunak diren erakundeei,



hala badagokio, egoki diren alegazioak egin ditzaten; horrela, jendaurrean jartzearen emaitza ikusita eta gaiaren arabera eskudunak diren erakunde publikoek egindako txostenak/oharrak ikusita, udalbatzarrak behin betiko onartuko du espedientea.

BOST.- ESKARIAK ETA GALDERAK

Ez zen eskari edo galderarik izan.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoenez, alkateak osoko bilkura bukatutzat emateko agindu du, gaurko arratsaldeko zazpiak eta berrogeita hamabost direla. Nik, Udaleko idazkariak, ZIURTATZEN DUT ETA FEDE EMATEN DUT.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,